

Donostia, 2016ko irailaren 8a.

IDAZKARITZA NAGUSIARI

MOZIOA ADINEKOENTZAKO EGOITZA PLAZAK DIRELA ETA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkeztu nahi du, adinekoentzako egoitza plazak direla eta, OSOKO BILKURAN azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Populazioaren zahartzea ukazina da. Urte gehiago bizi gara, baina ez beti baldintzarik onenetan. Horren ondorioz, eta zahartzeak dakartzan premia bereziak arintzeko eta haiei erantzuten laguntzeko, adinekoek arreta emateko zenbait politika publiko garatu dira, etxex etxeko laguntza zerbitzua, eguneko zentroak, mendetasun legearen ondoriozko laguntzak edo egoitzak, besteak beste.

Duela egun batzuk komunikabide batean agertu zen zaharren egoitzan sartzeko eskariaren hazkundeak Gipuzkoan dauden plazen eskaintzarena bikoizten duela. Zehazki Donostian, komunikabide horren arabera, 217 eskaera daude erantzun gabe, Gipuzkoa osoaren % 25 hain zuzen. Berez, Gizarte Ekintzako 2015eko Memoriaren arabera, Udaleko gizarte zerbitzuguneek egoitza plazetarako 779 eskaera kudeatu eta izapidetu zituzten.

Irabazi Donostiak uste du Udalak Foru Aldundiari konpromisoa eskatu behar diola egun Donostian eta lurraldearen gainerakoan dagoen eskariari erantzuteko beharrezkoak diren egoitza plazak sortzeko. Horrez gain, plazak titulartasun eta kudeaketa publikokoak izan behar dutela deritzogu.

Hori guztia dela-eta, hauxe da gure

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio sor ditzala Donostian eta lurraldeko gainerako udalerrietan dagoen eskariari erantzuteko adinekoentzako behar adina egoitza plaza, titulartasun eta kudeaketa publikokoak.



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

irabazi
DONOSTIA

Grupo Político IRABAZI DONOSTIA Talde Politikoa

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián
irabazi@donostia.eus - Tel. 943481717 - www.irabazidonostia.org

Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea.